



## DATUAK EZAGUTZEKO JARDUERA:

### Datuak adieraziz

Datuak biltzea zaila izan daiteke batzuetan, baina datu horiek era ulergarri eta argi batean adieraztea ere ez da lan erraza. Beraz, datuak adierazteko gaitasuna lantzeko asmoz, ikasleek datu ezberdinak adierazi beharko dituzte horretarako ematen zaizkien jarduera txostenetan.

## GELAKO MATERIALAK

Jarduera hau egiteko eranskinetan aurkituko dituzu beharrezko materialak.

### KONTUAN IZAN

- **HELBURUA**

Emandako datu ezberdinak grafika ezberdinetan adierazten ikastea.

- **IKASLEEI ESKATZEN ZAIENA**

Datuak bildu eta grafikoki adieratea eskatzen zaie ikasleei, horretarako, jarduera-txostena betez.